

Epaile nobelistak

Foko nagusia Kanbora mugitu den honetan, eskergarria zait kazetari bat, Martxelo Diaz, Madrilén. Altsasukoen epaiketan gelditu izana. Atzo defentsako abokatuek esandakoek guztia argituta utzirik dutela sinesteko tentazioa izan nuen. Berhala gogora etorri zait joan den astean Juanjo Olasagarrek *Deia*-ko bere zutabea idatzitakoa:



JIRA
Angel Erro

«[Epaileak] Irudikatu ditut forentse soziologiko moduan, gorpua, delitua, hartu, zatikatu, diagnostikatu eta sailkatzen. (...) Baina ez, ohartu naiz epaileak nobelisten moduan jokatzeko dutela, fikzioa sortu, Zigor Kodearen arabera (...), eta gero fikzio horren deskribapena egiten dutela. (...) Nobelista batek badaki bere ikuspuntua partikularra dela, eta munduaren gainean jalgitzen duen begirada ideologizaturik dagoela, gauza batzuk azpimarratu eta beste batzuk kanpoan uzten dituela. Epaile batek, aldiz, ez. Uste du bere begirada Legearena dela, (...) Lege orokor eta neutroarena, ikuspuntu eta ideologiari gabekoa».

Hori gogoan, nire kezkarik handiena da epaile-nobelista bat okerra zuzentzeraz ausartuko ote den, (...) (lau pertsona urte eta erdi kartzelan mantendu dituen) zirraborra zakarrontziratzera. Nobelistak ezagututa, pozik nengoke hiru urteko zigorra jarri eta kalera atera ahalko balirara.

Pelikanoa

Inoiz ez da jakiten atentzioa den txiki-erriak emango digun, gure arreta erabat bereganatzerainoko atentzioa. *Pelikano* hitzak esnarazi ninduen ni orain hurrengoan; desorduetan, *zapping* egiten niharduela, idazmakina zaharkitu batean *p-e-l-i-k-a-n-o* teklatzen ari zen gizonezko baten siluetak. Hegazti haietako bat irudikatu nuen, bere moko luzearen barreneko zakutxoan, bi, hiru, lau arrain zeroatzala. Eta leihotik hur daukadan arrainontziari begiratu nion, erreflexuz.



BIRA
Miren Amuriza

Leopoldo Maria Panero poeta madrildarrak laurogeita hamarreko hamarkadan Arrasateko psikiatrikoan eginiko egonaldiari buruzko dokumental bat ematen ari zireten telebistan: sei urte ei zeroatzen, ama hil zitzaionez geroztik, bisitarik hartu barik. Horixe omen, poetak zioenez, zoroen gaitzik larriena: inork ez dituela maite. Mandoa utzi, mugikorrari heldu, eta pelikanoaren poema topatu nuen, *Eroa lorategiko atetik beha* izeneko: «Gizon arrunt horrek (...), jakizu ez natzala hemen, hilibien artean, pelikanoa hiltzeagatik, baizik ezergatik ere ez, eta ez diodala ezeri, ezpada zoriari, nire hondamendia zor, ez jainkoaren, ez deabruaren ezain borondate sakraturri».

Eta neure burua irudikatu nuen, atosteko eroaren aurrean arruntaren egiten nituen bitartean, salako leihoa, disimuluan, ondo-ondo ixten; arraintxoak bahituko zizkidan hegaztiztar harekin enparanoiatuta.

21 Iritzia

ETA desagertu ondoren: preso en egoera

Jon M. Landa

EHUko Giza Eskubide eta Botere Publikoen Katedra zuzendaria

ETA desagertu izana berri ona da. Baina desagertuaren inguruan batzuk eta besteek egiten duten irakurketa politikoa gorabehera, aldaketa objektibo bat gertatu da: jada ez dago antolakundea. Egia da 2011n jada su-etena aldarrikatu izan zela eta harez geroztik ez dutela atentaturik egin; egia da armak ere eman dituztela eta hainbat aldiz, tenore ezberdinekin, egindako kalteaz aitortzen eta barkamena eskatzen ahalegindu direla. Baina maiatzaren 3an, beste urratsa eginenez, erakundea sortu zutenen izenean, erakunde hori desagertutzat jo dute, preso eta taldekideekin, antza, erabakitze prozesu baten ondorioz.

Su-etenetik desagertzeko unera arte ia zazpi urte pasatu dira, eta horrek argi asko erakusten du, halako erakunde konplexuak desagitea ez dela kontu erraza. ETA desagertzea ez baita soil-soilik «hitzen kontua»: alegia, hori adierazte hutsa. Horretaz gain, indarkeria aurrera eramateko modu antolatua indargabetu beharra dago. Beraz, politikak batzuetan aditzaera ematen duenaren aurka, ETArene errealitatea ezin da besterik gabe «aldarrikapen» hutsekin neurtu. Kontua serioagoa da.

Horregatik, bereziki garrantzitsua da baieztatzea zazpi urteotan hitzak ezetik aitzarna objektiboak ere pilatu direla; hain zuzen ere, ETA ez dela «arriksutsua» frogatze aldera. Pertsonak hiltzeko, lesionatzeko, bahitzeko, mehatxatzeko arriksuaz ari naiz. Hor-taz, ETA arriksutsua ez bada, errealitate hori ere preso en egoera juridiko-penitentziariora eramane beharra dago. Zeren eta desagertzeko unera heldu baita, presoek beraiek horretarako erabakia, alde bakarrekoa, bultzatu dutelako, ikuspegi horretatik, preso guztien eta bakoitzaren erabakia, ekarpena, ere badalarik.

Presondegietan, estandar demokratikoen arabera, errealitate berriak hainbat aldaketa ekarri beharko litz-

ke. ETArekin harremanetan jotakoak orain arte oso arriskutsuak balira beza-la tratatuak izan dira, inolaz ere kontuan hartu gabe erakundearen eraldatze prozesua. Presondegieta-ko-administrazioa eta Justizia-administrazioa hitzei begira zeuden, lelo bati helduta: ETAk darrai. Ez omen da ezer aldatu, zioten; oraindik ETArekin lotura mantentzen ei dute presoek eta lotura hori mozten ez duten bitartean ez dago berrikuntzarik. Lotura, jada, eten da: ez dago zerekin lotzerik.

ETAKo edozein presoren birgizartezatze pronostikoa aldatu da, eta horrek, lehenik eta behin, lehen graduko tratamenduan sailkatuta dauden guztien berrikustea ekarri beharko luke. Lehen gradua -isolamendu antzeko eraizte gogorra dakarrena- bukatu behar da, ETA bukatu den bezala. Izan ere, lotura horretan oinarritzen baitzuten Presondegieta-ko Administrazioak salbuespenzako aipatu eraizte-itxia. Lehen gradua ezetik, urruntzea eta dipertsioa ere, biak, bertan behera laga beharko lirarteke, ez baitago segurtasun arrazoibiderik halako egoera mantentzeko.

Presoak, demagun, bigarren graduan baleude, gainera, ETA desagertzeko egindako ahalegin indibiduala, preso bakoitzarena, «Justizia-administrazioarekin elkarlana» balitz beza-la uler liteke, argi eta garbi, ikuspegi juridikotik. ETA desagertzen lagundu bada, Presondegieta-ko Lege Organiko Orokorren 72.5 eta 6 artikuluetan azaltzen diren ukanbeharrak betetze-ko bidean jarri dira. Aipatu legean hirugarren gradua edota askatasun baldintzatua lortzeko ukanbeharrak bi dira: batetik indarkeria bertan behera uztea eta, bestetik, Justizia-administrazioarekin elkarlanean jardutea. Biak daude beteta. Izan ere, hor ezin baita «elkarlana» modu hedakorrean ulertu, erruztatuaen aurka. Objektiboki erakundea desagerrarazten lagundu bada, horrek aldaketa ekarri behar du. Inkluso ikuspegi honetatik begiratuta aitzakiak bukatu dira.

Esandakoaz haratago, borondatea balego (eta badirudi ez dagoela), indarkeria bertan behera utzita, justizia-administrazioarekin elkarlana gauzaturik, Presondegieta-ko Araudiaren 100.2 artikuluari helduta, esaterako, preson-

degi onura normalak (baimenak, hirugarren graduan xedagarri diren bizitz baldintzetako batzuk erdi askeko erregimenean bizitzekoak...), edozeini aplikatzekoak direnak, lor litezke legea inolaz ere behartu gabe. Izan ere, 100.2 artikulua «malgutasuna» ematen baitu, egoera berezietan, tratamendu programa bereziak martxan jartzeko. ETArene desagertzea ez bada egoera berezia, erakunde armatua indargabetu den neurrian, zer da berezia izango?

Azkeneko hausnarketa. Artikulu honetan esandako guztia ez da pribilegio baten aldeko ariketa dialektikoa. ETAKo presoei estandar salbuespenz-koak ezarri zaie, demokrazian berez ez zilegi dena, baina, inkluso hura defendatzen ari diren logika ankerraren ikuspegitik, aspaldi -baina orain area-go- ezartzeko aurreruposamendurik gabe gelditu dena. Orain eskatzen ari dena ez da, hortaz, estandar demokratiko bati helduta justiziaz gertatu beharko litzatekeena besterik. Beldur naiz, ordea, orain bestelako aitzakiak bilatuko direla presoenzako estandar salbuespenzkoari heltzeko. Eta horrek legea behartzen du urratzeraino. Horrek demokraziari berari egiten dio kalte. Horrek elkarbizitza eta berradiskidetzeari egiten die kalte. Eta horrek presondegieta-ko sistemaren zilegatasuna belaualdietarako kolokan jarriko luke. Hori nahi al dugu?

Horren aurrean, legegaria naizen aldetik, giza eskubideen zuzenbidearen aldarrikapena eta ariketa besterik ez zait geratzen. Estrasburgoko Giza Eskubideen Epai batek, *Clift v. Britainia Handia 2010*, jada esan zuen, diskriminazioa dela delitu jakin batzuen kasuan presondegi onurak ukatzea, gainerako delituetan posible direnean. Horren ildotik, Europako Kontseilua- ren 53.6 presondegi arauak dio, segurtasun goreneko neurriak «gizabanakori ez barneratuen talde osoei» ezarri behar zaizkiela. Onurak banan-banan aztertu behar, errealitate indibidualarekin alderatuz. Gobernuak ETAKo presoak kolektibo gisa, baldintza bereziak etengabe ezartzen, eta errealitatearen aurka eginez badihardu, Europako Giza Eskubideen Ituna urratzen ari da, diskriminazio onartezina eraginez. Noiz arte?